

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urteko 3. igandea

2010 Urtarrilak 24 (C urtea)

Patxi Otamendi

Nehemias 8, 2-4a. 5-6. 8-10

1 Korintiarrei 12, 12-30

Lukas 1, 1-4. 14-21

- Judutarrentzat Idaztiekin belaunaldi askotako promesen gordailu ziren. Promesa haiek esanetik izatera noiz pasako ziren esperantzan bizi ziren, promesa erakargarriak baitziren. Giza asmo sakonenei erantzuten zitelako.

Lukasen ebanjelioan Jesusek bere herriko sinagogan egiten du lehen adierazpen publikoa, beste bi ebanjelarietan ez bezala (Mateo eta Markos). Hauek aurreragoko kapituluren batean kokatzen dute, eta zer irakatsi zuen zehaztu gabe. Markosek sinagogan lekutzen du Jesusen lehen agerpen publikoa, baina deabruak hartutako gizona sendatzen. Mateorenean Zorion Deiaren hitzaldia da lehen azalpena.

- Jesusek egindakoa nahiko ohikoa zen judutarren artean: larunbatean sinagogako saiora joatean, parte-hartzaile bati Idaztien zatia irakurtzea eskatzen zitzaion. Lukasek erdi-esana uzten du Jesusek apropos bezala aukeratu zuela Isaiasen pasartea irakurtzea eta bere iruzkina gehitzea. Bertan aurreratzen du antzinatik landutako promesak, eta behartsu guztien benetako askapena, *orain, jada eta gaur bertan*, ari direla betetzen. Jendeak begirik kendu gabe entzuten zion. Egia ote izango zen hasiak zirela hainbeste desiratutako garaiak?

- Jesus sinagogan irakasten aurkezten digu Lukasek. Berea den beste liburuan -Apostoluen Egintzetan- apostoluak sinagogetan eta tenpluan aritzen dira bere mezua eta irakaspena zabaltzen. Argi dago Lukasek Teofilori ikasleari adierazi nahi diola Jesus eta bere jarraitzaileak ez direla judutar tradizioen aurkari. Nahiz eta horretaz salatuak izan. Zehazki dio 16 bertsikulan Jesusek ohitura zuela sinagogara joatea. Izango ote zuen ohitura ere sinagogan irakastea?

- Isaiasek profeta askatzaileaz iragarritakoa Jesusek bere eginkizunari aplikatzen dio: behartsu guztiak, herrialde mugarik gabe, askapenera deituak dira. Hori du egitasmo eta agenda. Hasieran bere esanak oso ongi hartu zituzten. Baina horrelakorik ez zen, inola ere, bere herrikideen asmoa. Hemen hasten da drama antzeko istorio-haria. Jendearen oldarra hurrengo igandeko testuan irakurriko da.

- Sinagogako saioa aurretik, kontakizunak dio Jesus “Espirituaren eraginez” itzuli zela Galileara. Jainkoaren espiritu biziaren ekimena zen. Espirituak ekintzara bultzatzen du beti. Isaiastik hartutako aipamenak dio askapena gauzatzea “bidalia” dela. Gerora Lukasek Apostoluen Egintzetan azalduko du zein eragin garrantzitsua zuen Espirituak lehen kristau belaunaldian.

Lukasen ebanjelioan aurrera eginez ikusten da 70 ikasle direla *bidaliak* Berri Ona hedatzera. Maisua zeruratua izan aurretik apostoluei esaten zaie Jerusalemendik nazio eta bazter guztietara Ebanjelioa zabaldua izango dela. Eginkizunak, nolabait, sakabanatu egingo ditu. Sarritan kristauen ohiko tentazioa izaten da bilduak egotea. Edo arreta handiago jartzea “entzutean” Berri Ona “hedatzean” baino.

Jesusek bere buruaz dioena onartzen ote dugu gure eginkizuna dela? Kristoren luzapen den garai guztietako kristau elkarteei luza genieziaieke gaur entzun duguna. Hori baita mendeetan zehar kristauen ekiteko nagusia... Salbamena ez “hutsean” gertatzen, egi teologiko borobila bezala. Salbamena pertsonen beharren eta zapalkuntzen askapena da. Hain zuzen, askapen zehatza.